

OIARTZUN / Lekuonako eraikina bota gabe jarriko dute bertan liburutegia

Eraikina botatzea zen Udalaren hasierako asmoa; merkatu zaharrean bezala, eraikina zaharberritu egingo dute

Iban Iza

Etxe Berriak auzoa hankaz gora dago une honetan, Olibet eta Etxe Berriak berritzeko obrak hasi baitziren orain dela aste batzuk. Etxe Berrietako lurra aldatzea izango da lehen berrikuntza, baina, birgaitze plan osoaren baitan, bestelakoak ere izango dira gerora. Horien artean, udal liburutegi berria eraikitzea Lekuona okindegia gaur egun dagoen lekuan. Lekuonako eraikina, ordea, azkenean ez dute eraitsiko; eraikina bera zaharberritu egingo dute, eta bertan atonduko dute udal liburutegia.

Horrela baieztatu zion joan den astean Oarsoaldeko Hitzari Elias Maestrok, larunbatera arte Hirigintza zinegotzia zenak. Hasiera batean, Lekuonako eraikina botatzea zen asmoa, bai; baina, azkenean, Lekuonako eraikina ez da botako. Eraikina berrantolatu eta zuzenean bertan kokatuko da udal liburutegi berria, Maestroren esanetan. Beraz, merkatu zaharrean egindako ekintzaren antzekoa izango da; merkatu zaharreko eraikinean bertan atondu baita herriak izango duen kulturagune berria, eraikinean beharrezkoak ziren berregokitze lanak eginda, Maestroren arabera.

Urtebeteko lanak

Olibet eta Etxe Berriak birgaitzeko plana kontratatzen hastea aho batez onartu zuen aurreko Udalbatzak, iazko azaroaren 24an. Alderdi guztiak pozik agertu ziren proiektuarekin, baina EAK nabarmendu zuen proiektuak jada urtebeto atzerapena zuela. Bi auzoak birgaitzeko lanen ardura, berriz, joan den martxoaren 2an esleitu zitzaion Construcciones Dumboa enpresari, denera, 3.016.383,89 euroko aurrekontuarekin.

Bi auzoak birgaitzeko plana, halaber, fase ezberdinetan garatuko da. Etxe Berrietako lurra aldatzea da lehen fasea, jada martxan dagoena. Halaber, auzoko hoditeria aldatzeko baliatzen ari dira obrak.

Aurrera begira, berriz, Panierreko orubea parke bihurtuko dute, udal liburutegia Lekuonan atonduko, egun Lekuonaren atzealdean dagoen orubea aparkaleku gisa egokituko, edota Oiartzun ibaiaren bazter guztian bidegorria egingo. Lekuona parean aurreikusitako zubi berria eraikitzeo obrak, ordea, maiatzean bukatu zituzten, zubi berria jartzean. Ekintza guztiak urtebeteko epean egitea aurreikusi du Udalak.